

Ezin puskatu dute  
Lauen indarrakin.  
Ari dirade lertzen  
Gaisoak alferrik,  
Ez da puskatutzeko  
Lauetan indarrik.  
Orduan zien aitak  
Semeai esan,  
Orra nere semeak

Elkartea zer dan:  
Izaten bazerate  
Elkarrekin etsai,  
Zuek garaitutzeko,  
Askoko da nor-nai;  
Baña makillen gisa  
Elkarturik ongi,  
Ez diruk gai izango  
Zuentzat amabi.

### ANTON ECHE-GALGARRIA.

Ustez beti jardungo  
Zuela lanean,  
Oficio batean  
Ez bazan bestean,  
Artu zituen Anton  
Eche-galgarriak  
Ofizio mot asko,  
Ez bazan guztiak.  
Arotzaz gañera zan  
Errementaria,  
Argiña, kapagiña,  
Eta dendaria;  
Gero berriz gañera  
Zan zapataria,  
Itz batean Anton zan  
Bear zan guztia.  
Eziñ esan diteke  
Zeukan fantasia,  
Ez ere errikoak  
Zien enbidia.  
Bere auzoan zuen  
Gizon bat argia,  
Izengoiti emalle  
Gutzizko andia.

Onek esaten zuen  
Karrikan, ferian,  
Lagunakin arkitzen  
Zan toki guztian;  
Apostura egingo  
Diot edozeñi,  
Eta, ala nai badu  
Antoni berari:  
Asmatzen derala nik,  
Zer zaion gertatzen  
Lau urreren barrenen,  
Ez bada len iltzen.  
Ez du jatekorika  
Izango echean,  
Ez ere jakirika  
Sartzeko eltzean;  
Ofizio bat ongi  
Bear da ikasi,  
Ez milla ofizio  
Eta milla gaizki.  
Oraindika lau urte  
Ez ziran pasatu,  
Onek esan zuena  
Bera zan gertatu.

Antonek ezer ongi  
 Ez zuen egiten,  
 Eta asi zitzaion  
 Jendea atzeratzen,  
 Alako moduan non  
 Ez zuen inondik  
 Illabete osoan  
 Egun biko lanik.  
 Auzokoak esaten  
 Zuen orduanche,

Sarri asiko zaigu  
 Anton echez-eche.  
 Argatika beñere  
 Ez da bear aztu:  
 Bi ofziok inor  
 Ez du aberastu,  
 Eta bitatik gora  
 Dituzten guztiak,  
 Izan oi dira beti  
 Eche-galgarriak.

---

## LA CRUZ DEL CAMINO.



De este valle ignorado peregrino,  
 Del sol lejano á la espirante luz,  
 Descansando á tu sombra en el camino,  
 Héme á tus plantas, cruz!

Eterna aquí, clavada en el sendero,  
 Tus piedras con mis labios al tocar,  
 No soy para adorarte forastero,  
 Soy del mismo lugar!

Si mi hogar á tu lado no blanquea,  
 Me finjo entre otros el que yo perdí;  
 Yo vengo, cual las hijas de la aldea,  
 A rezar junto á ti!

Ellas, dormidas á las pompas vanas,  
 La suya doblan al besar tu frente,  
 Cuando llevan, unidas como hermanas,  
 El cántaro á la fuente!